

Gure proiektua funtziona dadin hainbat baliabide beharko ditugu.

Lehenik eta behin, biltegi bat beharko dugu gure produktua osatzen duten piezak eta produktu bukatuak biltegitzeko. Bestetik, ekipamendua eta erremintak beharko ditugu langileek produktuak amaitu ditzagun.

Gainera, biltegian izango dugun bulego batean langileak egongo dira lanean. Berak, markak ditugun eskaerak maneiatuko ditu markaren irudia eta identitatea sare sozialen bidezko kudeaketaz arduratu, hornitzaileekin eta banatzaileen enpresarekin harremanetan egongo da, eta produktu eta piezen inbentarioa egingo du. Horretaz gain, bezeroen kritikak eta iradiokizunak kontuan hartuko ditu gure produktua hobetzeko.

Bestalde, produkzio eremuan langileaz gain gu ere egongo gara. Beraz, markan gutxienez 5 langile izango gara. Hori horrela izanda ere, litekena da denbora pasa ahala dugun ekoizpenari esker mozkinak irabaztea eta etekin horrekin langile gehiago kontratatzea produkzioa handitu dadin. Bilatzen dugun langile profila kompetentea, arduratsua eta adiestua izatea bilatzen dugu. Berebat, guretzako ezinbestekoa da komunikatzeko abilezia, ikusmen estrategikoa eta esperientzia izatea. Langile hauek biltegiaren 2 eremuetan beharko genituzke, bulegoan eta produkzio eremuan.

Halaber, finantza-baliabideen premia izango dugu; izan ere, hauek beharko ditugu jardun eta hazteko marka bezala. Bazkide bakoitza kapitala edo dirua jarriko dugu baina mailegu bat eskatuko dugu ere.

Azkenik, patentea beharko dugu, proiektuaren ideia gurea izan dela aintzatetsia gelditzeko eta produktuaren gainean eskubide eksklusiboa izateko. Baita marka bezala erregistratuko gara bitartekoak gure produktaren antzeko ekoizkinak ez egiteko edo hantzeko markek produktu bera ez merkaturatzeko; azken batean, nahasmena sor daiteke.